



(+34) 943 424119  
San Martin, 36 - 3.B  
20005 DONOSTIA

# Farmaberi

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

## VIII. Batzar Orokorra

*J*oan den apirilaren 6an, igandean, FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEAREN

VIII. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Urola-Kostaldeko herri zoragarria den Orion ospatu genuen.

Oso eguraldi ona lagun, hogeita hamar bat adiskide baino gehiago bildu ginen Orioko Kultur Etxeko areto ederrean batzarra hasiera emateko.

Bea Gaston idazkariak irakurri zuen aurreko batzarren akta (02/04/14) eta, jarraian, 2002ko oroitza-txostena. Egindakoaren artean azpimarratzekoa da azaroaren 26an Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean Farmazia Hiztegia aurkeztu genuela. Hiztegia, gure arloko lehenengoa da. Argitalpenak oihartzun handia izan zuen Euskal Herriko komunikabideetan (irradi, telebista eta prentsa idatzian). Segidan, diruzaintzaren txostena, 2002ko balantzea, sarrera-irteerak eta 2003 urterako aurrekontuak aurkeztu eta onartu egin ziren batzarrean. Pozgarria da esatea Farmazia Hiztegiak izan dituen babesle eta laguntzaileei esker Elkar-tearen ekonomia, gaur egun, erabat onbideraturik dagoela. Era berean, ontzat eman zen Batzorde Zuzendariak urte honetarako proposaturiko kuota: 30 euro alegia.

Jarraian, Pello Iturriak zenbait gai jorratu zuen. Nabarmentzekoa da Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren zorion mezua jaso dugula Farmazia Hiztegia argitaratzeagatik eta eskerrak eman dizkigute farmaziaren alorrean euskararen normalizazioaren alde egiten dugun lanarengatik. Pellok, bide batez, hiztegia erabili, oharrak hartu eta hitz eta termino gehiago jasotzeko animatu gintuen. Kontsei-

**Orion ospatu zen apirilaren 6an. Iñaki Lasa Aiestaran omendu zen Batzarra bukatu eta gero.**

luak, bestalde, gonbidatu egin digu Elkar-tea osatzen dugunok banan-banan Bai Euskarari Ziurtagiria lortzera.

Bestalde, gure elkar-tearen estatutuaren arabera, datorren udazkenean, Batzorde Zuzendariaren berritze prozesuari ekin beharke diogu, orduan betetzen baitira hiru urte oraingo Batzorde Zuzendaria hautatua izan zenetik.

Ideiak, proiektuak eta Farmazia eta euskararen alde lan egiteko gogoia baldin baduzue aurkeztu zeuen buruak. Ongi etorriak izango zarete.

Batzarra bukatu eta gero Kultur Etxeko aretoan bertan Iñaki Lasa Aiestaran lankide jatorra omendu genuen. Izan ere, FEUSEko Batzorde Zuzendariak, 2003ko urtarrilaren 16an egindako bileran erabaki zuen Iñakiri omenaldi bat egitea bere giza balioak eta merezimendu profesional guztiengatik. Honela esan genion FEUSEko lankideok eskainitako plaka ederrean. Jarraian, Iñaki bere semeak aitari buruz hitzaldi hunkigarria eman zuen. Botikari aparta baten bizitza kontatu zigun bikain Iñakik eta gure lankideak. Aita eta semea, goizeko protagonistak. Zorionak bioi.

Jai egunari amaiera emateko, omendua eta Ramonita Erzilla emaztearen inguruan eseri ginen Jose Mari Jatetxean, bazkari alai eta eder bat eginez.





Biztanleriaren gehiengoak di-tuen osasun beharrei erantzuna emateko behar diren medikamentuei, medikamentu esentzialak deritzogu. HIESaren adibide konkretuan, 12 antirretobiral daude Munduko Osasun Erakundearen Medikamentu Esentzialen zerrendan (12. zerrendan, 2002koa) agertzen direnak.

HIESari aurre egiteko sortu zen Nazio Batuen Erakundeak (UNAIS) emandako datuen arabera, gaur egun 42 milioi pertsona bizi dira HIESaren birusarekin kutsaturik munduan, gehiengoa (%95a) garatze bidean diren herrialdeetan bizi dira. 13.2 milioi ume (14 urte artekoak) gelditu dira umezurtz (aita edo/eta amarik gabe). Izurritea hasi zenetik, 27.9 milioi pertsonek galdu dute bizitza; hauetatik, 21.9 milioi Afrika subsaharia-rrerko biztanleak izan dira.

## HIESa Irabazien aurretik pertsonak daude

Horrelako arazo baten aurrean prebentzio lanean aritzea beharrezkoa da. Hortan dudarik ez dago. Baina zer gertatzen da honez gero kutsaturik dauden pertsonekin? Munduko Osasun Erakundearen arabera, momentu honetan bertan, 6 milioi pertsonak beharko lukete tratamendua. Gaur egun, 350.000 pertsona dira tratamendua hartzen ari direnak eta hauen erdia, Brasilen bizi dira.

Medikamentu batek bere helburua bete dezan, hau da, pertsona sendatzeko edo behintzat osasuna hobetze-

ko, katemaila ugari pasa behar ditu: ikerketa eta medikamentuaren garapena, produkzioa kantitate egokietan, kalitatea, erregistratzea, banaketa, informazio fidagarria, diagnostikoa, preskripzioa, dispensazioa, prezioa, tratamenduaren betetzea eta farmakobigilantzia.

Kate luze honetan sor daitzkeen arazo edo oztopoek era batean edo bestean pertsonendako ondorio batzuk ekarriko ditu. Nahiz eta esan bezala arazoak ugari izan, HIESaren tratamenduarekin gaur egun, medikamentuen

prezioa da trabarik handienetako bat.

Medikamentuen prezioak ondorio indibidualak dakartza, are gehiago kontuan hartzen badugu garatze bidean diren herrialdeetan medikamentuak pertsonak berak ordaintzen dituela. Adibidez, herrialde aberats batean HIESari aurre egiteko behar den tratamenduaren prezioa 4-6 hilabeteko soldataren baliokidea da. Garatze bidean ari diren herrietan bizi den pertsona batek, ordea, 30 urtetan irabazten duen soldataren baliokidea.

Mugarik Gabeko Medikuen (MSF) ustez, medikamentuen prezioa pertsonak edo osasun sistemak ordaintzen dahal duenaren arabera definitu beharko litzateke. Printzipioa simplea da: behartsuak gutxiago ordaindu beharuko lukete behar dituzten medikamentuengatik.

Medikamentu antirretobiralen prezioa merketu daitekeela ikusi dugu azken hiru urteetan. 2000. urteko maiatzean, marka komertzialeko antirretobiralen triterapiaren prezioa 10.400 dolar ziren pertsona batentzat eta urte bateko tratamendua. Eta urte horretako urrian, ekoizle generikoak sendagai konbinazio hirukoitz hori bera 800 dolarretan. 2001 eko otsailean, produktu generikoak 350 dolarretan hasi ziren saltzen. Gaur egun, munduko merkatuan aurki daitekeen preziorik hoberena 280 dolarrekoa da.

Arrazoi ekonomikoengatik, medikamentu esentzialen lortzea eragotzita egoteak giza eskubideen arloan galdera berri baten aurrean jartzen gaitu. Erronka honi aurrez aurre begiratu behar diogu eta arazo honen irtenbidea ez dago bakar batzuen esku; denok, eta are gehiago osasun arloan lan egiten dugunok, badugu zeregin.

**Nora Uranga**  
Farmazilaria  
Mugarik Gabeko Medikuen  
2003ko ekaina

# Algak farmaziaren munduan

## Gero eta gehiago erabiltzen dira

Algak farmazia munduan gero eta erabilera gehiago dute, bai ezaugarri terapeutikoak direla eta baita farmazia eta elikagai industrietan ere, ezaugarri fisiko-kimikoak direla eta. Algen osagaien artean hauek dira garrantzitsuenak: Poliskaridoak (algina, azido alginikoa, agaragar etab...), bitaminak eta mineralak (Iodoa batez ere).

Algaren izenpean organismo ugari kokatzen ditugu, baina oraingoan alga feofizeez edo pardoez arituko gara. Hauek pigmentuak dituzte (klorofila, karotenoak, xantinak...). Feofizeen erreserba egitura garrantzitsua laminarina (glukana) da. Pareta zelularra zelulosaz osatua dago barru aldetik eta kanpo aldetik fikokoloidez (alginatoak, fukoidinak).

Ondoren alga garrantzitsuenen ezaugarriak ikusiko ditugu:

### AZIDO ALGINIKOAK

Alga Pardoen osagai nagusia da. Fukus, Laminaria, Makrofitisa etab... erabiltzen dira muzilago hau lortzeko. Alga hauek gehienbat Itsaso tropikaletan aurki daitezke. Algetan gatz moduan egoten dira. Azido alginikoa urarekin kontaktuan jartzean, bere bolumena 35 aldiz handitzen du, eta koloide erako gela osatzen du. Ezaugarri honetan datza nagusiki bere erabilera terapeutikoa.

Liseri aparatuko eritasunean erabili ohi da (beste botika batzurekin batera). Batetik libragarri mekaniko bezala jokatzen du eta bestetik, gel likatsua horrek gehiegizko azidotasunetik babesten du urdaileko pareta.



Odol jariora gelditzeko ere erabiltzen da, azaleko zaurietan gel bat sortuz.

Koloide erako gel hau osatzeko ahalmena elikadura eta farmazia industrietan ere oso baliagarria da.

### LAMINARIAK

Espezie ugari dago hauen artean ere. Batez ere algina eta azido alginikoa ekoizteko erabiltzen da. Fukusak baino 10 aldiz Iodo gehiago dute, eta pertsona helduetan ez da komeni 120 mcgr. baino Iodo gehiago hartzea egunean, beraz haurdunaldian eta haurretan kontuz eman behar dira alga hauek.

### FUKUS-A

Alga legortu ondoren neurtuta % 0,03 eta % 0,2 bitarteko Iodo kopurua dute. Osagai garrantzitsuenak algina, azido alginikoa, laminarina eta fukoidina dira. Lipido bitamina, proteina eta mineralak (Iodoa kantitate esanguratsuan) ere badira Fukus-aren osagaien artean.

Zenbait ikerketetan ikusi da urteoroaren arabera bere osagaien portzentaia asko aldatzen dela, beraz kasu bakoitzean (legortu ondoren) ongi zehaztu beharko da osagai bakoitzaren zenbatekoa. Kutsadura dela eta masa handiko metalik dagoen ere oso gertutik jarraitu behar da. Azido alginikoa dela eta, libragarri moduan eragiten du.

Fukoidinaren eragina = Zikatrizatzailea, azalari elastotasuna ematea, antikoagulatzailea.

Fukusak ezaugarri antimikrobianoak eta antifungikoak dituela ikusi da.

Gaur egun argaltzeko erabiltzen da baita ere, libragarria delako, Iodoa duelako, eta gosse sentsazioa jeisten duelako, ura xurgatzean hartzen duen bolumena dela eta.

### KOMBU ETA WAKAME

Jatorri japoniarreko feofize hauek ere, terapeutikan asko erabiltzen dira.



## FEUSE saria

**FEUSE SARIAren oinarriak gogorazi nahi dizuegu ale honetan:**

- Lanak jasotzeko epea 2003ko urriaren 31 bitartekoa izango da.
- Partehartzaileak: farmazialariak eta farmazia fakultateetako ikasleak.
- Lanak aztertuko dituen epaimahaia FEUSEk izendatuko du. Epaimahaikideek ezin izango dute lanik aurkeztu deialdi honetan.
- Epaia 2003ko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko zaio irabazleari.
- Epaimahaiaren erabakiaren aurkako helegiterik ez da onartuko.
- Sariaren kopurua 3.000 \_ izango da eta zatiezina da.
- Farmaziarekin zerikusia duten euskaraz idatzitako lanak onartuko dira.
- Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Horrela ez izateagatik sor daitezkeen arazoan arduraren egileena izango da eta FEUSEk ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.
- Egileak bat edo gehiago izan daitezke, baina guztiak farmazialari edo farmazia fakultate bateko ikasle izan behar dute. Baldintza hau egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.
- Irudiak, grafikoak, argazkiak edo bestelako eranskinak zenbakiturik eta testutik berezirik aurkeztuko dira.
- Lana osatzen duen testu guztia fitxategi informatikoan aurkeztuko da eta aldi berean, hiru ale DIN A4 formatuan inprimaturik aurkeztuko dira.
- Lana prestatzeko erabilitako bibliografia ere aurkeztu beharko da.
- Lanarekin batera gutun bat igorri beharko da, bertan lanaren izenburua eta egilearen edo egile taldearen izen goitua aipatzen direlarik. Gainera kartazal itxi baten kanpoaldean ere lanaren izenburua eta izengoiti berbera jarriko dira eta kartazalaren barruan egilearen edo egileen izen-deiturak eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa gordeko dira.
- Aurkezpen gutuna, inprimaturiko lanaren hiru aleak, euskarri informatikoan gordetako bertsioa eta egilearen edo egileen datuak gordetzen dituen kartazal itxia igorriko dira honako helbidera: Farmazialari Euskaldunen Elkarte. Saria. San Martin, 36-3.B. 20005 Donostia.

## Udako Euskal Unibertsitatea

### 31. Udako Ikastaroak 2003

UEU bere ohiko eskaintzaz datorkigu. Eskaintza berria eta eraberritua, hogeita zortzi ikastaro Biarritz eta Iruñean (Natur Zientziak, Psikologia, Fisika, Sexologia, Osasuna, Eusko Kultur Gaiak, Kimika, Informatika, Sukaldaritz...) Biarritz eta Iruñeko ikastaroak unibertsitario euskaldunen topalekuak dira. Elkarren berri izateko, proiektu berriak partitzeko eta abian jartzeko, lagunak egiteko, euskal kulturaren egoera zertan den bertatik bertara ikusteko...

Biarritzen uztailaren 7tik 11ra eta Iruñean uztailaren 15etik 19ra. Informazio orokorra UEUren webgunean [www.ueu.org](http://www.ueu.org)

## 2003ko deialdia

### Jose Antonio Loidi Ikerketa Beka

Aldizkari honekin batera bidaltzen dizuegu Irungo Udalak urte honetarako Jose Antonio Loidi ikerketa beka-ri buruz prestatutako diptiko ederra. Bekaren laugarren deialdia da. Ezaugarriak eta baldintzak irakur ditzakezu bertan. Harreman eta informaziorako helbideak: Irungo Udala. Euskara Zerbitzua. San Juan harria plaza 1. 20304 Irun. Helbide elektronikoa: [euskara@irun.org](mailto:euskara@irun.org) Telefonoa: 943 649250. Web gunea <http://www.irun.org>

luz 8 proiektu aurkeztu ziren (5 norbanako eta 3 talde). Beka jaso zuen proiektua *"Irungo udalerriaren landaredi-mapa"* (Botanika) izan zen eta eskatzaileak Egoitz Salsamendi, Leire Oreja eta Iker Zendoia izan ziren.

Hauexek ziren aurkezturiko beste zazpi proiektuak: *"Irungo baserriak: orain arteko egoera eta etorkizuna"* (Antropologia). Eskatzailea: Joseba Zendoia.

*"Sendabelarren erabilera Bidasoa Beherean"* (Botanika eta osasun publikoa). Eskatzailea: Monika Casas.

*"Euskal ipuingintzaren historia"* (Literatura). Eskatzailea: Xabier Mendiguren Elizegi.

*"Eskola haurren euskara erabilera Irunen"* (Filologia). Eskatzaileak: Ion Caballero eta Jon Miranda.

*"Arrantza eta itsas eremuaren babesa: Hondarribiako arrantzaleen hausnarketa eta jarduna"* (Antropologia). Eskatzaileak: Jaime Anduaga eta Pio Perez.

*"Oarsoaldeko eta Donostialdeko eleberrien egungo eta historian zehar izan duen egoera"* (Literatura). Eskatzailea: Ainara Arizmendi.

*"Euskal atzizkien historia: jatorrizkoak eta maileguzkoak"* (Filologia). Eskatzailea: Ane Bueno.

## FEUSEko deia

### Parte hartu lan taldeetan!

FEUSEk lan-taldeak berritu eta bultzatu nahi ditu. Beraz, ateak zabalik dituzue edozein lan-taldetan parte hartzeko edo farmaziari dagokion edozein gai prestatzeko. Esku hartu gogo baduzue, deitu lehenbailehen.

Jakizazue, 210 kide dituela FEUSEk: 9 Araban, 45 Bizkaian, 93 Gipuzkoan, 2 Lapurdin, 57 Nafarroan, 1 Nafarroa Beherean, 1 Bartzelonan, 1 Burgosen eta 1 Malagan. Hauetako 141 emakumezkoak eta 69 gizonezkoak.